

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ERRIBERABEITIKO UDALA

#### **Erriberabeitiko Udalak onartutako Aktibazioaren aldeko Itunaren neurri ekonomikoen oinarri arautzaileak**

Udal honek, 2020ko uztailaren 6an balio osoz egindako osoko bilkuran, Erriberabeitiko Udalak onartutako aktibazioaren aldeko itunaren neurri ekonomikoen oinarri arautzaileak onartu ditu.

#### **ERRIBERABEITIAKO UDALAK ONARTUTAKO AKTIBAZIOAREN ALDEKO ITUNAREN NEURRI EKONOMIKOEN OINARRI ARAUTZAILEAK**

EAJ/PNV alderdiaren Gobernuako alkateak Erriberabeitia Aktibatzeke Ituna proposatu die Udalbatza osatzen duten talde politikoetako gainerako bozeramaileei.

Interes orokorreko ituna da, eta horren bidez 172.000 euroko zuzkidura bideratu da aurrekontuko baliabideetatik koronabirusaren izurriteak herrian sorrarazitako gizarte eta ekonomia ondorioak arintzeko.

Udala herritarrengandik hurbileko administrazioa denez, udalak berak banatu behar ditu baliabide horiek ahalik eta modurik proportzionalen eta zuzenenean, eta eraginkortasunez erabili behar ditu pertsona ahulenen premiei erantzuteko helburuz.

Pertsona horien artean daude udalaren ekonomiaren kaltetu nagusiak, hau da, udalerriko sare ekonomikoko funtsezko enpresetakoak, hala nola ostalaritzakoak, ostatu arlokoak, zerbitzuen sektorekoak, industria eta gainerako sektoreetako enpresa txikiak, jarduera eten egin behar izan baitute edo, bestela, jarduera nabarmen murriztu baitzaie.

Itun hori elkartasun printzipioaren arabera sinatu da, azken ehun urteetan izan den osasun krisi handienaren ondorioak gainditzeko helburu erkideari jarraiki.

Erriberabeitiko Aktibazioaren aldeko Itunak pertsona ahulena eta ekonomia laguntza nahiz gizarte urgazpeneko premia handienak dituztenak jotzen ditu erabakien xede. Beste alde batetik, larrialdi premiei ere erantzuten die, bai eta funtsezkoak ez diren sektoreen ekoizpenaren etenaldiak eta hibernazioak bertan behera utzitako ekonomia eta merkataritza jarduera sustatzeari ere.

Erabakitako laguntzak ondokoak dira:

#### **ERABAKITAKO NEURRIAK**

##### **A). Aholkularitza**

Ostalaritzari, ostatuari eta zerbitzuen sektoreari aholkularitza pertsonalizatua emateko zerbitzua abian jartzea, COVID-19aren osasun krisia dela eta.

Horri dagokionez, interesdunek telefonoz edo era telematikoan eskura dezakete zerbitzu hori, eta, horren bidez, hainbat erakundek osasun krisiaren ondorioak arintzeko abian jarritako neurrien berri emango zaie.

Ekimen hau Araba, Garapen Agentziaren gidaritzapean egin dadila proposatzen da, lurraldeko eragile ekonomiko nagusiekin lankidetzan, hala nola Merkataritza Ganbera, SEA Arabako Enpresak, UAGA Arabako Nekazarien Elkartea, Aenkomer eta Elkargi, bai eta Añanako Kua-drillako eta Añanako Landa Garapenerako Elkartearen ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatzeko zerbitzuekin ere.

Honako webgune honen bidez: [www.ayudasarabacovid19.eus](http://www.ayudasarabacovid19.eus),

informazio orokorreko zerbitzua eskaintzen de eta aholkularitza pertsonalizatua eska daiteke. Zerbitzua guztiz doakoa da.

#### B). Egutegia eta zerga neurriak

2020ko zerga egutegia aldatuko da, honela:

1). Tributuen ordainketa hiru hilabetez geroratzeko aukera emango da, baldin eta ordaintzeko borondatezko aldia martxoaren 14tik aurrera amaitu bada, hau da, alarma egoera deklaratu zen egunetik aurrera.

2). Era berean, borondatezko ordainketa aldiaren amaiera data hiru hilabetez atzeratzeko aukera emango da, alarma egoera amaitzean kobratzeko bideratzen diren gainerako tributuei dagokienez.

3). Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) hiru epetan geroratzen laguntzea ABEEE edo EEE baten eraginpean dauden pertsonen, zerga helbidea udalerrian duten norbere konturako langileei eta saltoki txikien titularrei.

Era berean, onuradunek kontraprestazio egokia jaso ezin izan duten tasa eta prezio publiko guztiei dagokienez, udalak itzulketa proportzionala egingo die, hala nola kirolarekin, musika-rekin, kulturarekin eta abarrekin lotutako jarduera guztietan.

Bestalde, udalak legez egokiak diren zerga hobariak ahalbidetzeko behar beste ekintza bultzatuko ditu. Salbuespen gisa, krisiak zuzenean lotutako kasuetan, aipatutako hobarien zenbateko baliokidea proposatu ahal izango da laguntza eta dirulaguntza itzulgarri gisa.

#### C). Neurri ekonomikoak.

30.000 euroko laguntza larriak jarriko dira martxan honako arrazoi hauengatik:

1). Zuzeneko laguntzak hauetako gertaeraren batek eragindako pertsonentzat: ABEEE baten aplikazioa, profesionalen jarduera ezinbestean etetea edo jarduera eteteko edo murrizteko antolaketa arrazoiak edo 2020ko martxoaren 14tik aurrera egindako lana azkentzeko enplegu erregulazioko espediente (borondatezko azkentzea ezik).

Kolektibo horrentzako zuzeneko laguntza larria 15.000 eurokoa izango da, eta alarma egoerak iraun duen artean kontzeptu guztiengatik hilean 1.000 euro baino gutxiagoko diru sarrerak izan dituzten pertsonen emango zaie; bestalde, onuradunen familia nukleoaren diru sarrerak, guztira, ezingo dira lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak izan. Azken kasu horretan, laguntzaren zenbatekoa hileko lanbidearteko gutxieneko soldataren zenbatekoari dagokiona izango da, eta laguntza alarma-egoerak iraun duen artean emango da.

#### 2). Industria ehuna.

Guztira, 15.000 euroko laguntza proposatzen da Erriberabeitiako industria sare oso eta norbere konturako langile eta enpresa txiki eta ertainek osatutako pertsonentzat, baldin eta alarma egoeraren ondorioz, jarduera itxi behar izan badute edo alarma egoerak iraun duen hilabeteetan (martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean), haien fakturazioa % 75 baino gehiago murriztu bada, 2019ko bigarren seihilekoan fakturatutako batez bestekoaren aldean, eta, beharrezkoa balitz, kolektibo hori biziberritzen laguntzeko laguntzak ematea proposatzen da, gehienez ere, 15.000 eurokoak; hala, onuradunek 800 eurorainoko laguntza jasoko dute, gehienez ere, hiru hilabeteetan, norbere konturako langile, merkataritza edo ETE bakoitzarentzat. Kolektibo horretako

kide direnek banaka jasotzen dituzten erakundeek laguntzen batura ezin izango da 2019ko bigarren seihilekoan fakturatutako batez bestekoa baino handiagoa izan.

Dirulaguntza lerro honi heldu ahal dioten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea eta egoitza fiskala Erriberabeitiko udalerrian izatea, alarma egoerari buruzko dekretua eman aurretik. Gainera, Erriberabeitin egin behar dute lan.

2. Enpresaren plantillak, gutxienez, 5 lagunekoa izan beharko du.

3. Enpresak idatziz hitzemango du negoziua, gutxienez, 6 hilabetez martxan izango duela.

4. Enpresak idatziz hitzemango du, gutxienez sei hilabetez, alarma egoera deklaratu aurretiko langileak izango dituela eta plantilla horri eutsiko diola. Hala, urtearen amaieran, TC agiria aurkeztuko du egiaztagiri gisa.

D). Gizarte neurriak.

Larrialdietarako laguntzen bidez, Udalbatzak 10.000 euroko kreditu lerroa jarriko du egoera ahulenean dauden pertsonentzat, gizarte bazterketako egoeran daudenentzat, eta etxebizitza alokatzeko laguntzak emango dizkie COVID-19aren ondorioz zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak, bai eta bizi gastuei aurre egiteko ere, hala nola argi, ur eta gasaren hornidurari, hileko erosketari eta abarri. Nolanahi ere, aurreko laguntza horietarako behar den aurrekontu guztia bideratuko da.

Laguntza eskatzen duten pertsonak gizarte langilearen bidez egin beharko dute izapidetzea, eta hark emango du laguntza emateko aldeko irizpena.

E). Dinamizazioa.

Udalak tokiko merkataritza sustatu eta bultzatzeko ekitaldiak eta jarduerak antolatzeke kanpainak areagotuko ditu, urte honetako egoera normalizatu ondoren. Horretarako, 10.000 euroko aurrekontua emango du.

F). Aurrekontuko neurriak.

a). Udalbatzak 20.000 euroko kontingentzia funtsa zuzkituko du ekitaldi honetan, osasun krisiaren ondorioz ekitaldian zehar sortzen diren ustekabeko beharrei erantzuteko.

b). Enpresa txiki eta ertainek eta norbere konturako langileek eskatzen dituzten kreditu itzulgarriak aztertuko ditu udalak, eta horretarako, 20.000 euroko kreditu lerroa egokituko du.

Ez da onartuko abantailazko interes tasadun kreditu-lerroak eskatu dituen kolektibo horren eskaerarik, hala nola ELKARGIk, ICOK edo administrazioak eskainitako beste edozein.

Laguntzen eskaerak aurkezteko epea:

Oinarri arautzaileak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskabideak aurkezteko epea, eta 2020ko irailaren 30ean amaituko.

Administrazio erabakiaren bidez, epea kanpo aurkeztutako eskabideak ez dira izapidetzeko onartuko, gaiaren muinean sartu gabe.

Laguntzak eredu ofizialari jarraiki eskatuko dira, eta Erriberabeitiko Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (San Martin plaza 1, Ribabellosa), edo Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Laguntzak izapidetzeko eta ebazteko organoa

1. Espedientea izapidetzeko organo eskuduna Alkatetza izango da, hirugarren paragrafoan zehaztutako kide anitzeko organoak irizpena eman ondoren.

2. Eskabideen instrukzioa Erriberabeitiko Udalaren Erregistro Orokorrean jasotako hurrenkera korrelatiboari jarraituz egingo da, betiere aurrekontuko kontsignaziorik badago. Instrukzioan, jarduera hauek kontuan hartuko dira.

– Ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txosten guztiak eskatzea, besteak beste, idazkari-kontu hartzailearena.

– Eskaerak ebaluatu, oinarri arautzaile hauetan zehazten diren irizpideen arabera.

3. Eskaera aztertu ondoren, Alkatetzak ebazpen proposamena egokia egingo du, eta kide anitzeko organoak horren berri emango du. Hona hemen organo horren osaera:

– Burua: Miren Santamaría Martínez, alkate-udalburua, edo, alkateak ezin badu, ez badago edo gaixorik badago, lehen alkateordea.

– Mahaikideak: M<sup>a</sup> Mar Hernández Rodríguez, udal idazkari eta kontu hartzailea, M<sup>a</sup> Ángeles Sopelana García, diruzaina eta karrerako funtzionarioa, Ángel Ruiz de Loizaga Mato, Erriberabeitiko Udaleko zinegotzia, Eva Aisa Andino, Erriberabeitiko Udaleko zinegotzia eta RBB alderdi politikoko zinegotzi bat.

– Idazkaria: Teresa Ruiz de Angulo de la Hera, Erriberabeitiko Udaleko aparejadorea.

4. Alkatetzak, ebazpen arrazoituaren bidez, dirulaguntzen emakida ebatziko du. Dirulaguntzak ebazteko epea 20 egunekoa izango da, eskaerak aurkezteko epea amaitzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita. Ebazpena epe horretan ematen eta jakinarazten ez bada, eskaera ezetsizat jo beharko da.

5. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen ekainaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikulua xedatutakoaren arabera, jakinarazpena egin eta bi hilabeteko epean.

Horren aurretik, errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Erriberabeitiko Udaleko alkatetzari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorriz.

#### G). Administrazio batzarrak

Alarma egoeraren zioz, herriko jaiak ospatu edo bertan behera uzteko aukeraren inguruko ziurgabetasuna dela eta, administrazio batzarrekin akordioak adostea proposatzen da, herriko jaien antzeko ekitaldiak egiteko, udalerriko ostalaritza ekonomia bultzatzeko, betiere osasuna eta segurtasun publikoa bermatzea lehenetsiz.

Gertaera jendetsuek, hasteko eta bat, osasun agintariak koronabirusaren krisiaren barruan emandako gomendio guztiak urratzen dituzte, hala nola gizarte urruntzea, pertsonen artean, gutxienez, metro bateko tarteari eustea ezinezkoa baita horrelako ekitaldietan. Horregatik, aste batzuk barru Eusko Jaurlaritzak aurkeztuko duen dokumentua ezagutu bitartean, udalerrri askotako jaiak kolokan daude.

Beraz, irizpide argi batzuk adostuko ditugu, maila goreneko erakundeek gomendatzen dutenarekin bat datozen kultura eta jai ekitaldien baldintzak eta garapena zehazteko. 30.000 euroko laguntza ematea proposatzen da.

Era berean, 40.000 euroko laguntza eman nahi diegu administrazio batzarrei, urte honetan sor daitezkeen obren gastuak ordaintzeko eta beste erakunde batzuetatik jasotzen duten finantzaketa osatzeko edo aurtengo euriteek eragin dituzten kalteen ordainketari aurre egiteko, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren laguntzak osatuz.

#### H). Bonuak.

5 euroko erosketa bonuak banatuko dira Erriberabeitia udalerriko ostalaritzako establezimenduetan, ostatueta eta zerbitzuen sektorean trukatzeko. Bonu horiek Erriberabeitin erroldatutako

pertsona guztiei banatuko zaizkie. Bonuen onuradun izateko, alarma egoera deklaratu aurretik erroldatutako pertsona moduan agertu beharko du eta 18 urte baino gehiago izan beharko ditu edo 2020an bete beharko ditu. Udalak doan banatuko ditu bonu horiek.

Guztira, 6.000 euro banatuko dira bonuetan.

Bonu horiek 5 eurotik gorako erosketetan trukatu ahal izango dira, inoiz ez zenbateko horretatik beheragokoetan, aldea ez baita itzuliko.

Bonuak ondoko establezimenduetan baliatu ahalko dira:

- Casa Julio taberna
- Kultura etxeko taberna
- Igerilekuko taberna
- On egin taberna jatetxea
- Arasur taberna jatetxea
- Manzanosko denda-taberna eta aterpetxea
- Corte Home bazarra
- Erriberabeitiko batzokia
- Amets ile apaindegia
- Maitane argazki denda

Deialdiko baldintzak betetzen dituen beste edozein proposamen aztertuko da, baldin eta Erriberabeitiko udalerrian lan egiten duten norbere konturako langileak badira.

Bonua trukatzeko, nahikoa izango da parte hartzen duten establezimenduetan aurkeztea. Bonuak kobratzeko, kontsumitzaileek aurkeztutako bonua erantsi beharko dute establezimenduek eskaerari.

Bonuak 2020ko azaroaren 30era arte baliatu ahalko dituzte erabiltzaileek.

Erosketa bakoitzeko bonu bakarra onartuko da.

I). Beste neurri batzuk.

Alarma egoerak irauten duen bitartean, udalbatzak salbuetsi egingo du taberna jarduera xede duten udal jabetzako ondasun higiezin errentamendua. Era berean, korporazioak bere gain hartuko ditu jarduera berari dagozkion ordejarritako gastuak (Manzanos).

Era berean, ez zaie jasanaraziko aldi horretan argi horniduraren, uraren eta gasaren fakturazioa. Zenbatetsitako gastua 6.000 eurokoa izango da.

Ribabellosan, 2020ko uztailaren 7an

*Alkatea*

*MIREN SANTAMARÍA MARTÍNEZ*

**COVID-19 DELA ETA, MIKROENPRESENGAN ETA LANGILE AUTONOMOENGAN OSASUN LARRIALDIAREN KRISIAK SORTUTAKO ERAGINA ARINTZEKO LAGUNTZEN ESKAERA**  
**SOLICITUD DE AYUDAS DESTINADAS A PALIAR EL IMPACTO DERIVADO DE LA CRISIS DE EMERGENCIA SANITARIA, OCASIONADA POR EL COVID-19, SOBRE LAS MICROEMPRESAS Y PERSONAS AUTÓNOMAS**

<b>IZENA ETA ABIZENAK EDO SOZIETATEAREN IZENA/ NOMBRE Y APELLIDOS O RAZÓN</b>	<b>NAN-AIZ-IFK /DNI-NIE-NIF SOCIAL</b>
<b>ORDEZKARIA (1) (IZENA ETA ABIZENAK)/REPRESENTANTE (1)</b>	<b>NAN-AIZ-IFK /DNI-NIE-NIF (NOMBRE Y APELLIDOS)</b>

(1) Ordezkatze-ahalmenaren egiaztatze agiria aurkeztuko du. Pertsona juridikoa bada, ahalordetze-eskrituraren kopia.  
 (1) Aportará poder de representación. En caso de representar a una persona jurídica, copia de la escritura de apoderamiento.

KOMUNIKAZIOA-JAKINARAZPENA EGITEKO DATUAK/ DATOS PARA LA COMUNICACIÓN-			
<b>Kale /Calle</b>	<b>Zk/Nº</b>	<b>Solairua/Piso</b>	<b>Herria/ Pueblo</b>
<b>Posta-Kodea/ Código Postal</b>	<b>Udalerría/ Municipio</b>	<b>Lurraldea/ Provincia</b>	
<b>Posta elektronikoa/ Correo electrónico</b>	<b>Telefono zk./ Nº Teléfono</b>	<b>Mugikorraren zk./ Nº móvil</b>	

Nola egin jakinarazpena/Notificar por  Posta/Correo postal  Elektronikoki/Electrónicamente   
 Jakinaraztea/Notificar a:  Persona interesada  Ordezkaría /Representante

ESKATZEN DEN DIRU-LAGUNTZA/SUBVENCIÓN QUE SE SOLICITA	
<b>Enpresa mota zehaztu/Indicar tipo de</b>	<input type="checkbox"/> <b>Langile autonomoa/Persona autónoma</b> <input type="checkbox"/> <b>Mikroenpresa/Microempresa</b>
<b>Jardueraren izena/Denominación de la actividad</b>	
<p>COVID-19 pandemiaren krisiak eragindako defizita arintzeko Udalak egindako laguntzen deialdia ikusita, eta bertan adierazitako oinarriak ezagututa, honako gastu hauek finantzatzeko diru-laguntza bat ematea eskatzen dut (adierazi kontzeptuak eta zenbatekoak):</p> <p>A la vista de la convocatoria de ayudas del Ayuntamiento para paliar el déficit originado por la crisis de la pandemia COVID-19 y teniendo conocimiento de las bases expresadas en la misma, solicito me sea concedida una subvención por los importes que, a continuación, se señalan para la financiación de los siguientes gastos (indicar conceptos e importes):</p>	
<b>Eskatutako zenbatekoa/Importe solicitado:</b>	<b>Itzul daitekeen laguntza/Ayuda reembolsable</b>
	<b>Itzuli beharrik gabeko laguntza/Ayuda a fondo perdido</b>

## AZALTZEN DUT/ EXPONE

- Udalarai baimena ematen diot, eskumena duten administrazioei eska diezazkien zerga-betebeharrei eta gizarte segurantzari buruzko datuak, prozedura honen eskakizunak betetzen ditudala egiaztatzeko helburuarekin bakarrik.
- Gaur egun, erakunde horren ordezkari naizen aldetik, jakin badakit ez dagoela diru-laguntzen onuradun izatea eragotzen duen egoera batean ere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. Artikuluaren arabera.
- Ordezkarri naizen erakundeak ez du eskatu edo lortu helburu bererako diru-laguntza edo laguntzarik, eskabide honekin lotuta.
- Ordezkarri naizen erakundeak eskatu eta/edo lortu ditu helburu bererako diru-laguntza edo laguntzak, eskabide honekin zentuzkoa dutenak, jarraian adierazten diren administrazio edo erakunde publiko edo pribatuetatik.
- Autorizo al Ayuntamiento a que solicite a las Administraciones competentes los datos de estar al corriente en las obligaciones tributarias y la seguridad social, exclusivamente a efectos de comprobar el cumplimiento de los requisitos del presente procedimiento.
- La entidad en cuya representación actúo, al día de la fecha, me consta que no está incurso en ninguna de las circunstancias que imposibilitan la obtención de la condición de beneficiario/a de subvenciones, según el art. 13 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- La entidad en cuya representación actúo, no ha solicitado ni obtenido subvenciones o ayudas para la misma finalidad relacionadas con esta solicitud.
- La entidad en cuya representación actúo, ha solicitado y/u obtenido subvenciones o ayudas para la misma finalidad relacionadas con esta solicitud, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados que se reflejan seguidamente.

DIRU-LAGUNTZA EDO LAGUNTZEN DESKRIBAPENA/DESCRIPCIÓN DE SUBVENCIONES O AYUDAS			
Eskutatutakoak/Solicitadas	Emandakoak/Concedidas	Eman duen erakundea/Entidad concedente	Zenbatekoa/m porte

## ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA / DOCUMENTACIÓN APORTADA

- NANaren fotokopia/Fotocopia del DNI.
- Merkataritza-Erregistroan erregistratutako eratze-eskritura eta estatutuak, sozietateen kasuan. Langile autonomoek Langile Autonomoen Erregimen Berezian altan egotearen ziurtagiria aurkeztu beharko dute/Escritura de constitución y estatutos inscritos en el Registro Mercantil, en el caso de sociedades. Las personas autónomas deberán aportar el justificante de alta en el Régimen Especial de Trabajadores Autónomos.
- Eskaera sinatzen duenaren ordezkariatza agiria, dagokion kasuan/Poder de representación del firmante de la solicitud, en su caso.
- Banku-kontuaren titularitasunaren ziurtagiria/Certificado de titularidad de la cuenta bancaria.
- Zerga Agintziarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua indarrean jarri baino hilabete lehenagotik emanak, baldin eta Udalarai horiek lortzeko baimenik eman ez badio / Certificados de estar al corriente con las obligaciones con la Agencia Tributaria y con la Seguridad Social emitidos con antigüedad inferior a un mes a la fecha de la entrada en vigor del RD 463/2020, de 14 de marzo, en caso de no autorizar al Ayuntamiento para su obtención.
- GSDOk emandako enpresaren bizitza laboralaren agiria, 2020ko martxoaren 14ko datarekin/Informe de vida laboral de la empresa emitido por la TGSS a fecha 14 de marzo de 2020.
- GSDOk emandako txostena, plantillan altan dauden langileen batezbestekoa jasotzen duena, 2020ko martxoaren 14ko datarekin. Dagokion kasuan, langilerik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena/Informe de plantilla media de personas trabajadoras en situación de alta emitido por la TGSS a la fecha 14 de marzo de 2020. En su caso, declaración responsable de no tener personas trabajadoras.
- Jarduera itxeko aginduari lotutako egitura-gastuak egiaztatzen dituen memoria laburra/Breve memoria en la que se acrediten gastos estructurales asociados al imperativo de cierre de su actividad.